

STARTINNOVA: BALORE PROPOSAMENA

Tximistek eskaintzen duten energia garbia da. Haien bitartez, energia kantitate handia lortuko dugu eta erregai fosilekiko dugun mendekotasuna murriztuko dugu. Tximisten energia, oso ugaria izatean, oso merkea bihurtuko da horrelako energiaren lorpena. Gainera, energia ekologikoa eta ez kutsagarria da eta tximista bakarretik energia asko lortzeko aukera dagoela uste dugu.

Industrian aurrerapenak egitea eta lanpostu berriak sortzea da beste helburu bat. Horrela, gizarte bezala azkarrago egingo dugu aurrera. Bestalde, teknologiaren arloan ikertzaileek ekarriko dizkiguten berrikuntzei esker, baliabide teknologikoak esponentzialki igo egingo dira.

Tximistak energia elektriko askorekin hornituko gaitu, eta proiektu honekin energia hori ehuneko ehunean aprobetxatuko dugu. Horretarako dorre txiki asko eraikiko ditugu lursail asko estaltzeko eta, aldi berean, tximisten energia hainbat kable desberdinetan banatu. Horrela, energiarik ez da galduko prozesuan, tximistak erakarriko ditugu, eta, era berean, askatzen duten energia xurgatzen dugu. Kableek harrapatutako energia garraiatu eta beste leku batzuetara eramango dute berehala kontsumitzeko. Laburbiltzen, energia eta energiaren sakabanaketa da eskainiko dieguna gure bezeroei.

Beste enpresa batzuk haize-energian edo ur-energian edo horrelakoetan oinarritzen dira, baina tximista-energia iturri harrapaezina dirudien arren, gure ikertzaileak gai izango dira oztopo hori gainditzeko. Munduko enpresa bakarra gara tximistetatik energia garbia ateratzen.